

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 72/2020 Erabakia, otsailaren 11koa. Baimena ematea zenbait lurzati trukatzeko Larrinbeko Administrazio Batzarraren eta jabe partikularraren artean "Ejido de Larrinbe" izeneko onura publikoko 64 mendian

Mendi Zerbitzuak adierazi du ezen, Larrinbeko herriaren "Ejido de Larrinbe" izeneko onura publikoko 64 mendia mugatzeko prozeduraren barruan, zenbait eragiketa itundu zirela Larrinbeko Administrazio Batzarraren eta Amaia Aldama Murga jabe partikularraren artean.

Eragiketa horiek eragina dute onura publikoko mendiko lurzatietan nola aipatutako jabe partikularraren lurzatietan, eta haien xedea lurzati antolamendu eta kudeaketa hobea erdiestea da, lurzatiak esparru itxietan elkartuz eta batuz. Zehazkiago, onura publikoko mendiari balio ekologiko handiko zuhaitzi zona bat erantsi nahi zaio, horren aldera bi jabetza partikularren artean harrapatuta dagoen lur zerrenda estu bat emanez, bai eta mendiaren mutur batean dagoen larre bat ere.

Trukearen analisia jarraian azaltzen den bezala da:

Amaia Aldama Murgak hau eskaintzen du trukerako:

Bere jabetzako finkaren atal bat, Amurrioko udalerriko 1 poligonoko 23 katastro lurzatiaren parte bati dagokiona.

Larrinbeko Administrazio Batzarrak hau eskaintzen du trukerako:

Amurriion dagoen landa finka baten zatia. Onura publikoko 64 mendia, "Ejido de Larrinbe". Honako hau da haren katastroko erreferentzia: 1 poligonoa, 197 lurzatia (parte bat).

Amurriion dagoen landa finka. Onura publikoko 64 mendia, "Ejido de Larrinbe". Honako hau da haren katastroko erreferentzia: 1 poligonoa, 248 lurzatia (parte bat).

Larrinbeko Administrazio Batzarrak truke espedientea hasi du Administrazio Batzar horrek eta Amaia Aldama Murgak aurkeztutako jabetza dokumentuei dagokienez, ondokoari buruzko administrazio adostasun eskariarekin:

Amurrioko 1 poligonoko 23 katastro lurzatiaren parte bat banantzea eta, ondoren, onura publikoko 64 zenbakiko mendiari eranstea.

Amurrioko 1 poligonoko 197 katastro lurzatiaren parte bat banantzea, gaur egun "Ejido de Larrinbe" izeneko onura publikoko 64 mendiarena dena, eta, ondoren, Amurrioko 1 poligonoko 129 katastro lurzatiari eranstea, zeina Amaia Aldama Murgaren jabetza baita.

Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza zuzendariak aldeko txostena eman zuen administrazio adostasunari buruz 2015eko azaroaren 19an (espediente bakarra, zenbaki hau duena: 133.699/2015).

Espedientea betez, Larrinbeko Administrazio Batzarrak Aialur SL enpresari enkargatu zion trukatzeko ondasunen balorazioaren txosten teknikoa egitea; David Guinea Aldama eta Jon Ander Navarro Martin jaunek sinatutako 2016ko martxoko txostenaren izenburua "Larrinbeko Administrazio Batzarrak eta Amaia Aldamak lursailak trukatzeko egindako txostena" da.

Txosten tekniko horretan jasotako peritu balioespenaren arabera, Larrinbeko Administrazio Batzarrak 2.188,97 m² lur ematen du, 1.547,83 eurotan balioetsita, lurra eta lurgaina barne. Amaia Aldama Murgak 2.531,29 m² ematen ditu, 1.547,83 eurotan balioetsita, lurra eta lurgaina barne.

Ondorioz, berdintasuna dago trukatzeko diren ondasunen balioan.

Txosten tekniko horretan jasotakoaren arabera, egin nahi den trukea egiteak onura ekarriko du alderdi guztientzat. Izan ere, finka pribatuak "Ejido de Larrinbe" izeneko onura publikoko 64 mendiari eranstean, zuhaitzez estalitako eremua handitu egingo da eta aldaketaren ondoren esparru itxiak egongo dira; horrek erraztu egingo du basoko lanak egitea eta, beraz, mendiaren kudeaketa ere bai.

Horregatik guztiagatik, eta uztailaren 20ko 21/2015 Legeak, mendienak, 16.4. eta 17. artikuluetan eta martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, mendienak, 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Horren ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKIA

Lehenengoa. Baimentzea aurretik aztertutako trukea, Larrinbeko Administrazio Batzarrak egina, "Ejido de Larrinbe" izeneko onura publikoko 64 mendiaren zati diren zenbait lurzatitan eragina duena. Haren laburpena honekin batera doan eranskinean jasota dago.

Bigarrena. Onura publikotik desafektaturik deklaratzeko eta onura publikoko mendien katalogotik kanporatzea "Ejido de Larrinbe" izeneko onura publikoko 64 mendiaren 2.188,97 metro koadroko eremua, Larrinbeko herriarena, Amurrioko landa katastroko 1 poligonoko 197 lurzatiari (parte bat) eta 248 lurzatiari dagokiena, jabetza partikularreko beste batzuekin trukatzeko. Horrela, zuhaitzia handiagoa izango da, eta kudeaketa erraztuko da; ondorioz, Larrinbeko Administrazio Batzarraren onura publikoko mendien baldintzak hobetuko dira.

Hirugarrena. Onura publikoko deklaratzeko 2.531,29 m²ko eremu bat, Amurrioko landa katastroko 1 poligonoko 23 lurzatiaren parte bati dagokiona, lehen jabetza pribatukoa zena, eta mendien katalogoan sartzea, "Ejido de Larrinbe" izeneko onura publikoko 64 mendiaren barruan.

Laugarrena. Erabilera publikotik desafektatze hori, onura publikoko mendien katalogotik kanporatzea, lursail pribatuak onura publikoari afektatzea eta, ondorioz, onura publikoko mendien katalogoan sartzea, egin nahi den trukea gauzatzeko baldintzaren pean jartzea. Horretarako, Larrinbeko Administrazio Batzarrak, egokitzat jotzen den epean, eskritura publikoak aurkeztu behar ditu, bidezkoak diren idatzoharrak egiteko mendien katalogoan.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratu behar dela adieraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 11

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

ERANSKINA
LABURPENTAUOLA

Hona hemen trukearen laburpena:

INTERESDUNA	EMANDAKO LURZATIAK	AZAL, M ²	BALORAZIOA EUROTAN	JASOTAKO LURZATIAK	AZAL, M ²	BALORAZIOA EUROTAN
Amaia Aldama Murga	1/23 (zati bat)	2.531,29	1.547,83	1/197 (zati bat) 1/248	1.410,92 <u>778,05</u> 2.188,97	1.547,83
Larrinbeko AB	1/197 (zati bat) 1/248	1.410,92 <u>778,05</u> 2.188,97	1.547,83	1/23 (zati bat)	2.531,29	1.547,83